



Gobernu Batzarraren Akta
2023ko azaroaren 27a

Bildutakoak:

Hernaniko Udaletik Lehendakaria	eta	Patxi Iburguren Etxeberria
Andoingo Udaletik		Pepe Iparraguirre Balda
Astigarragako Udaletik		Xabier Urdangarin Lasa
Usurbilgo Udaletik		Iratxe Begiristain Otegi
Lasarte-Oriako Udaletik		Nuria Fernández Castrillo

Akta Zenbakia
00000012

Eguna
2023/11/27

Asistentzia teknikoa:

Idazkari-Kontuhartzailea	Julen Mungia Gorrotxategi
Zuzendaria	Helene del Río Laboa

Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi dute:

Urnietako Udaletik	Jorge Segurado Iriondo
---------------------------	------------------------

Gai Zerrenda

- | | |
|---|--|
| 1.- 2023/11/06(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada. | 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 06/11/2023. |
| 2.- Euskara teknikarien hizkuntza irizpideen aurkezpena. | 2.- Presentación de los criterios lingüísticos de los/as técnicos/as de euskera. |
| 3.- 2024. urteko aurrekontuen baiezkotza jaso eta Batzar Orokorraren data finkatu aurrekontuak onartzeko. | 3.- Recibir la aprobación de los presupuestos del año 2024 y fijar la fecha de la Asamblea General para la aprobación de los presupuestos. |
| 4.- Maitelan Kooperatibari nola lagundu ikustea. | 4.- Ver cómo apoyar a la Cooperativa Maitelan. |
| 5.- 2024. urteko Mankomunitatearen lan-egutegiaren proposamena. | 5.- Propuesta del calendario laboral 2024 de la Mancomunidad. |
| 6.- Sexu-jazarpen planaren onarpena. | 6.- Plan de acoso laboral. |
| 7.- GFAREN turismo bisitaren aldaketen jakinaraztea. | 7.- Informar sobre las modificaciones de la visita sobre turismo de la DFG. |
| 8.- Hiritik At-ekin bilera egiteko data finkatzea. | 8.- Fijar la fecha para la reunión con Hiritik At. |
| 9.- Galdera, erregu eta proposamenak. | 9.- Ruegos, preguntas y propuestas. |

Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzten da.

1.- 2023/11/06(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2023/11/06 datako batzaraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeak aho batez ontzat eman du.

2.- Euskara teknikarien hizkuntza irizpideen aurkezpena.

Hernaniko, Urnietako eta Andoaingo Euskara teknikariak etorri dira Mankomunitateko Hizkuntza Irizpidearen proposamena mahairatzera eta azaltzera. Aurreko batean egindako proposamenaren oso antzekoa izan da, matiz txiki batzuez gain.

Lasarte-Oriako ordezkariak euskara ondo ulertzen ez duenez, Telegram bidez, aldi bereko itzulpen sistema erabili dute puntu honetan, Urnietako teknikariak itzulpen lanak eginaz.

Proposamena aurkeztu eta gero, Lasarte-Oriako ordezkariak adierazi du ondo iruditzen zaiola euskaren alde egindako urrats horiek, adibidez, teknikarien artean euskaraz aritzearena. Hala ere, eskatu du Mankomunitateko Gobernu Batzarrera bideratutako dokumentuak eta bilera horietan hitz egiten dena elebietan egitea, horrela ez baita galduko eta bere partaidetza handiago izango da.

Eztabaida eta iritzi-trukaketa egon da hemen. Astigarragako ordezkariak gogoratu du lankidetzaren hitzarmenean, duela urte batzuk, euskararen ezagutza ez zuten zinegotzien udalek hartzen zutela bere gain karga dokumentuak gazteleratzeko. Bestalde, Astigarragako ordezkariak ere proposatu du saiatu gaitzekela dena gaztelerara itzuli beharrean, adibidez, laburpentxoak itzultzen (esan denaren muina barne hartzen duena). Lasarte-Oriako ordezkariak ez da proposamen horren alde azaldu.

Azkenean, erabaki da Lehendakaritzak mankomunitateko hitzkuntza-irizpide proposamena egingo duela, kontuan hartuta aipatutakoa, eta aurrerago eztabaidatuko eta erabakiko dela.

3.- 2024. urteko aurrekontuen baiezkua jaso eta Batzar Orokorraren data finkatu aurrekontuak onartzeko.

Usurbilgo ordezkariak adierazi du bajaran egon dela eta ezin duela bere idazkari eta kontuhartzailearekin honi buruz hitz egin.

Andoaingo ordezkaria, alkatearekin eta teknikoekin batera, goizean, batzar hau baino lehen, gurekin bildu dira zalantza batzuk argitzeko eta honi buruz aritu gara. Gai batzuk zehazteke daude oraindik beraiek aurrekontuak onartu ahal izateko.

Lasarte-Oriako ordezkariak adierazi du bere udalean hainbat arazo ikusten direla:

- Teknikoki: teknikariak adierazi diote Nuriari aurrekontuen azalpena txikia dela. Idazkari-Kontuhartzaileak adierazi dio, aurrekontuen PPT aurkezpenaz eta kudeaketa-planaz gain, Memoria ere aurkeztu genielako, non, bertan detaile guztiak azaltzen diren eta aurrekontua partidaka xehetuta.

- Kontuhartzaitza sailetik: Kontuhartzaileak oraindik gai hau mahai gainean duela azaldu du, eta ez duela erabakirik hartu. Hala ere, aurreratu du T.E.E.-etan %53 jasotzea eta aurrerago %47a, posible dela ez iruditzea oso ondo. Gogoratu zaio Mankomunitateak aurreratzen badu diru guztia, udalei ekarpen handiagoa eskatu behar zaiela.
- Idazkaritza sailetik:
 - o Mankomunitateko Estatutuen 5. Artikulua aldatzea eskatu du, eta Mankomunitateak eskumen batzuk **egin ahal** dituen tokian **egingo** dituela jartzea proposatzen du. Bestela, orain dagoen bezela mantenduz gero, Mankomunitateak jorratu nahi duen ekintza bakoitzeko udalek Mankomunitateari eskumen transferentzia bat igorri beharko lekieke, edo bestela, kudeaketa-agindu bat sinatu.

Azaldu zaio udal-idazkariekin gai hau jorratuko dela. Hala ere, ulertzen da, adibidez, jarri den T.E.E. gainean, udal teknikariek egin beharreko lana ez litzakeela kudeaketa-agindu batean sartu beharko. Eskumenak konpartituak direla eta ez eksklusiboak, beraz, alor batean (enplegua, enpresa, turismoan...) Mankomunitateaz gain, udal-teknikarien ekarpenak egon behar direla.

4.- Maitelan Kooperatibari nola lagundu ikustea.

Idazkari-kontuhartzaileak adierazi du, Zuzendariarekin batera, Juantxo Landaberearekin bildu zirela eta, besteak beste, Maitelani laguntzeko zein egoeratan dagoen Mankomunitatea galdetu ziela. Juantxoren iritziz, laguntzeko aukera hobereana Dirulaguntzen Lege Orokorren baitan dagoen hitzarmen bat sinatzea dela, dirulaguntza bat emateko, eta hori justifikatzeko babestu nahi den interes sozialeko baloreekin: inmigrazioa, sektore feminizatua, lan-merkatu beltza...

Hasiera batean ez dute gaizki ikusi baina gai hau sakotzen jarraitzeko borondatea erakutsi da.

5.- 2024. urteko Mankomunitatearen lan-egutegiaren proposamena.

Ordezkariek ez dute gaizki ikusi nahiz eta Astigarragako ordezkariak esan duen, adibidez, beraien Udalean aurrean ez dutela utziko urte bateko opor egunak hartzen datorren urteko urtarrilaren 31 arte, salbuespeneko kasuak izan ezik.

Udako eta neguko orduetegiari buruz ere aritu dira.

Hala ere, ez da inongo ondoriora iritsi, nahiz eta esan den erabaki hau hartzeko eskumena Lehendakariaren dela.

Honekin lanean jarraituko da.

6.- Sexu-jazarpen planaren onarpena.

Denek begi-onez ikusi eta onartu dute.

7.- GFaren turismo bisitaren aldaketen jakinaraztea.

Ekintza hau datorren urteko otsailaren 9ra mugitu da eta 10:00tan egingo da.

8.- Hiritik At-ekin bilera egiteko data finkatzea.

Ekintza hau egiteko eguna eta ordua finkatu da: abenduaren 18n 12:30tatik 14:30tara.

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

9.- Galdera, erregu eta proposamenak.

Ez da parte-hartzerik izan.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, Idazkari-Kontuhartzaileak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

O.E., / Vº Bº
Lehendakaria

1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la reunión celebrada el 06/11/2023.

En primer lugar, una vez leída el acta correspondiente a la sesión celebrada el día 06/11/2023, la Presidenta somete a votación su aprobación, que es aprobada por unanimidad por la Junta de Gobierno.

2.- Presentación de los criterios lingüísticos de los técnicos de euskera.

Técnicos de Euskera de Hernani, Urnieta y Andoain han venido a exponer la propuesta de Criterio Lingüístico de la Mancomunidad. Ha sido una propuesta muy similar a la realizada en una ocasión anterior, además de algunas pequeñas matices.

Dado que la representante de Lasarte-Oria no entiende bien el euskera, a través de Telegram, han utilizado el sistema de traducción simultánea en este punto, realizando labores de traducción por parte del técnico de Urnieta.

Una vez presentada la propuesta, la representante de Lasarte-Oria manifiesta que le parece bien esos pasos dados a favor del euskera, por ejemplo, el de hablar en euskera entre los técnicos. No obstante, ha pedido que los documentos destinados a la Junta de Gobierno de la Mancomunidad y lo que se hable en esas reuniones se hagan en bilingüe, porque así no se perderá y su participación será mayor.

Aquí ha habido debate e intercambio de opiniones. El representante de Astigarraga recuerda que en el convenio de colaboración, hace años, eran los ayuntamientos de los concejales que no tenían conocimientos de euskera los que asumían la carga de castellanizar los documentos. Por otro lado, el representante de Astigarraga también ha propuesto que «en vez de traducir todo al castellano podemos, por ejemplo, traducir resúmenes (lo que incluye el núcleo de lo que se ha dicho)». La representación de Lasarte-Oria no se muestra favorable a esta propuesta.

Finalmente, se acuerda que la Presidenta elabore la propuesta de criterio de concertación de la mancomunidad, teniendo en cuenta lo señalado, que se debatirá y decidirá más adelante.

3.- Aprobación de los presupuestos del año 2024 y fecha de la Asamblea General.

La representante de Usurbil señala que ha estado de baja y que no ha podido hablar de esto con su secretario e interventor.

El representante de Andoain, junto con el alcalde y técnicos, por la mañana, antes de esta asamblea, se han reunido con nosotros para aclarar algunas dudas y hemos tratado sobre esto. Hay cuestiones pendientes de concretar para que ellos puedan aprobar los presupuestos.

La representante de Lasarte-Oria señala que en su Ayuntamiento se observan diversos problemas:

- Técnicamente: Los técnicos indican a Nuria que la explicación de los presupuestos es pequeña.

El Secretario-Interventor le indica que, además de la presentación del PPT de los presupuestos y del plan de gestión, les hemos presentado la Memoria en la que se detallan todos los detalles y el presupuesto desglosado por partidas.

- Desde el departamento de Intervención: El Interventor explica que todavía tiene este tema encima de la mesa y que no ha tomado ninguna decisión. Sin embargo, adelanta que en los T.E.E. el 53% y más adelante el 47%, es posible que no parezca muy bien. Se le recuerda que si la Mancomunidad adelanta todo el dinero, a los ayuntamientos hay que exigirles una mayor aportación.

-Desde el departamento de Secretaría: Pide modificar el artículo 5 de los Estatutos de la Mancomunidad y propone poner que la Mancomunidad **hará** algunas competencias donde pone **pueda hacerlo**. En caso contrario, si se mantiene tal y como está ahora, por cada acción que quiera abordar la Mancomunidad, los ayuntamientos deberían remitir a la Mancomunidad una transferencia de competencias o, en su caso, firmar una encomienda de gestión.

Se le explica que se va a tratar este tema con los Secretarios Municipales. Sin embargo, se entiende que, por ejemplo, sobre la E.T.T. que se ha colocado, la labor a realizar por los técnicos municipales no debería incluirse en una encomienda de gestión. Que las competencias son compartidas y no exclusivas, por tanto, en un ámbito (empleo, empresa, turismo...) Que además de la mancomunidad tiene que haber aportaciones de técnicos municipales.

4.- Ver cómo apoyar a la Cooperativa Maitelan.

El Secretario-Interventor señala que junto con la Directora se reunieron con Juantxo Landaberea y les preguntó, entre otras cosas, en qué situación se encuentra la Mancomunidad para ayudar a Maitelan. En opinión de Juantxo, la mejor opción para ayudar es la firma de un convenio dentro de la Ley General de Subvenciones para la concesión de una subvención y para justificarlo con los valores de interés social que se quieren proteger: inmigración, sector feminizado, mercado negro de trabajo...

En principio no lo han visto mal pero se ha mostrado la voluntad de seguir profundizando en este tema.

5.- Propuesta de calendario laboral de la Mancomunidad para el año 2024

Los representantes no lo ven mal a pesar de que el representante de Astigarraga ha dicho que, por ejemplo, en su Ayuntamiento este año no van a dejar coger los días de vacaciones de un año hasta el 31 de enero del año que viene, salvo casos excepcionales. También han hablado sobre las horas de verano e invierno. Sin embargo, no se llega a ninguna conclusión, aunque se dice que la competencia para adoptar este acuerdo es de la Presidenta. Con esto se seguirá trabajando.

6.- Aprobación del plan de acoso sexual.

Todos lo han visto con buenos ojos y lo han aceptado.

7.- Comunicación de modificaciones de la visita turística de la DFG

Esta acción se ha movido al 9 de febrero del año que viene y se realizará a las 10:00 horas.

8.- Fijar fecha para la reunión con Hiritik AT

Se fija fecha y hora para la realización de esta acción: 18 de diciembre de 12:30 a 14:30 horas.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Preguntas, ruegos y propuestas, y tras considerar urgente el debate del asunto, por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los junteros, se adoptaron los siguientes acuerdos.

9.- Preguntas, ruegos y proposiciones.

No ha habido participación.

Y si no hubiera más asuntos que tratar, la Sra. Presidenta da por terminada la sesión ordinaria, redactada por el Secretario-Interventor y leída y aprobada por la Presidenta, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen de las Entidades Locales. Y de todo esto doy fe yo, que soy.

O.E /Vº Bº
La presidenta

